

❧ Hitz eta Pitz ❧

Yolanda Arrieta, Enkarni Genua eta
Aizpea Goenaga



Hona hemen hiru andereño antzerki zale, antzerki obren idazle eta antzerki-arekin maiteminduak: Yolanda Arrieta, Enkarni Genua eta Aizpea Goenaga.

Hirurak txiki-txikitatik gustuko izan dute antzerkia eta horregatik jo zuten hura ikastera, Yolandaren kasuan, Etxabarrira, Donostiara, Frantziara eta beste zenbait tokitara; Aizpearen kasuan berriz, New Yorkera; eta, Enkarnik honako hauek izan ditu irakasleak besteak beste: Fredy Artiles eta Zenen Calero (Cuba); Ferruchi Soleri Taldekoekin, Carmen Aymerich.

Ondoren, antzezten eta idazten hasi ziren eta oso emaitza onekin jaso dituzten sariei kasu eginez gero:

ENKARNI GENUA:

1980 Ercilla Saria. Bilboko Udala.

1985 Haur-Musika (Opera) I. Lehiaketa. Musika Juan Cordero Castaño. Gidoia. Enkarni Genua. Obra: Erreka Mari

Umeentzako antzerki testuen lehiaketa. Nafarroako Antzerki Eskola. Irunako Udala.

2001 Donostia Hiria Literatur Saria. Kutxa. Antzerkia.

2007 Victoria Eugenia Saria. Donostiako Antzerki Feria.

AIZPEA GOENAGA:

1991. tesauro saria e.t.bko saiorik onenari, hau da a.u.ri paco rabal saria- aktore berriari murtziako zinema jaialdian.

1995 donostia hiria antzerki saria, zu(t)gabe antzezanagatik.

2003 serantes antzerkin saria, agur betiko antzezanagatik.

2004 antzerki laburra- café bilbao saria, joetuta antzezanagatik.

2005 toribio altzaga saria- euskaltzaindia eta bbk. santxa antzezanagatik.

YOLANDA ARRIETA:

Legazpiko Udala . I. Legazpi saria: *Noiz baina!* Antzerkia.

Santurtziko Udala. Antzerki Labur sariak: *Gaur ez dago funtziorik* eta *A eta B = 1?* lanengatik. Antzerkia.

Eusko Jaurlaritza. Euskadi Sariak. Pedro Barrutia antzerki saria: *Badago ala ez dago?* lana-rengatik. Antzerkia.

Donostia. Turismo Saila. Donostia Hiria antzerki 2. Saria: *Lekurik bai?* lanarengatik. Antzerkia.

Max saria. Euskarazko antzerki testurik onenari, *Groau!* lanarengatik. Haur antzerkia.

Laburbilduz, oso zaila da islatzea hiru emakume hauek egindako lan guztiak eta duten jakituria guztia, hortaz onena hitza ematea izango da.

Zuek arras toki desberdinetatik ailegatu zarete antzerki obrak idaztera. Egingo diguzue ibilbide hori?

Yolanda: Txikitatik ezagutu dut antzerkia herrian. Urtero taularatzen zen obraren bat herriko jaietan. Kosta zitzaidan haietan parte hartzea, gustuko izan arren, oso lotsatia nintzelako, baina nerabezaroan antzeztu nituen pare bat obra, adin ezberdinetako beste zenbait herritarrekin batera. Gogoan ditut, adibidez, Agustin Zubikarai zenaren *Aingirakumeak* edota ez dakit oso ondo nork idatzitako *Tomas ezkongai* izenekoa. Biak ala biak herri giroko komedia kostunbristak.

Handik urte batzuetara, (1986) *Antzertin* ikasten zebilen Itziar Elexpek antzerki tailer bat egitea proposatu zuen herrian, eta han hasi ginen dozena bat lagun antzerkiaren beste ikuspegi bat lantzen, aurrekoekin alderatuta, zerikusi handiagoa zuena inprobisazioarekin edota gorputz adierazpenarekin. Itziar Elexpek irekitako bidetik jarraitu nuen gero, batetik eskolak hartzen *Antzertin* eta beste hainbat lekutan, eta bestetik, antzerki tailerrak ematen, gazte, irakasle eta umeei, batik bat ahozko adierazpenaren alderdi dramatikoari garrantzia emanaz. Era berean, Itziar Elexpek Etxebarriko taldea uztean, nik neuk hartu nuen gidaritza lana, beti ere, mantenduz hark ereindako lan-estiloa, inprobisazioan eta talde sorkuntzan oinarritua. Garai hartakoa da, adibidez, *14 Herriotzena* izeneko antzezlana, herrian, 1825ean gertaturiko hilketa batzuk biltzen dituen izen bereko bertsoetan oinarritua.

Ondoren, beste zenbait obra idatzi izan ditut, sari ezberdinak irabaziz.

Enkarni: Hasteko, niri betidanik antzerkia egitea asko gustatu zaidala aitortu behar dut. Nire haurtzaroaren oroigarrietan antzerkia,

mozorroak, antzezlanak e.a. azaltzen dira. Gazte nintzenean eszenatoki baten gainean ezagutu nuen Manolo Gomez, gaur egun nire senarra dena. Ezagutu, maitemindu, ezkondu eta seme-alabak eduki ere bai.

Eta horrela, era normal batean heldu zen Txotxongillo Taldearen sorrera. 1971.urtean Euskal kultura basamortu hutsa zen. Gure seme-alaben ikastolako jaialdi baterako txotxongilo emanaldi bat egitea erabaki genuen. Horretarako txotxongiloak egin izan behar genituen, eta baita gidoia ere.

Egun hartatik aurrera, jendearen bultzada izugarriarekin txotxongiloa egiten jarraitu genuen, eta ni, nolabait, idazle bihurtu nintzen.

Aizpea: Antzerkia idazten hasi baino lehen ipuin mordoa idatzi nituen *Ipurbeltz* aldizkari-rako, eta aurretik zirroberraturata nituen makina bat koaderno. Gero telebistarako gidoiak eta eszenak idaztearena txandaka zihoazen, boladaka. Oraindik ere gordeta ditut bere garaian idatzitako antzerki testuak, batzuk amaituak eta gehienak hasi eta bukatu gabeak. Nire antzerki testuak erakusteko lotsa lehiaketa bat irabazitakoan galdu nuen (erabat ez badut galdu ere).

Gure artean ez da anitz argitaratzen antzerkia. Zuen ustez zergatik gertatzen da hau? Sortze lan gutxi dagoelako? Azpigeneko bezala hartua delako? Modan ez dagoelako?

Aizpea: Ez gaude antzerkia irakurtzen ohituak. Gure gizartea ez da bereziki antzerki kulturari blai dagoen gizartea, orokorrean behintzat. Nahiz eta antzerki zale asko egon, eskola garaietatik hasita egiten diren ahaleginak pertsona bakarrenen inizatibetatik sortuak izaten dira. Beti bada halako eskolan, oso ondo lan egiten duen antzerki talde bat, edo hemen sortu den lagun taldea baina inertziaz gabeko ahaleginak dira.

Eta horretaz gain, antzezlan batzuk ederrak izaten dira irakurtzeko baina egia esan, entzuteko are ederragoak izaten dira.

Yolanda: Etenik gabeko zurrunbiloa da antzerkigintzaren kontu hau. Irakasleek eskatu eskatzen dituzte obrak, baina gero, ez dakit ba gehiegi saltzen ote diren. Egia esan, joera hori aldatuz doala ematen du, argitaletxe batzuk hasi direlako lan batzuk argitaratzen edota antzerki bildumei tokia egiten (Erein).

Enkarni: Antzerkia ez dela gure artean anitz argitaratzen egia da, baina gauza bera gertatzen da leku guztietan. Berta Muñoz Cáliz, Haur antzerkiari buruzko ikertzaileak, horrela dio: «*Se puede afirmar, que el teatro para niños y jóvenes es el género literario peor tratado por el sector editorial de nuestro país*». «*En nuestros días, la edición de libros de teatro para niños apenas llega a la treintena de títulos al año, cuando la producción anual de libros de literatura infantil y juvenil supera los diez mil títulos anuales*».



Gure artean ez gaude ohituta antzerkia irakurtzen, eta penagarria da. Irakurri gabe geratzen baitira Literatura Unibertsaleko altxor literario zoragarriak. Ez da genero zaila irakurtzeko; alderantziz esango nuke. Baina ezaugarri berezirik badauka. Egoerak, pertsonaien ezaugarriak eta zenbait gauza irakurleek imajinatu behar dituzte. Hasieran ahalegin txiki bat egin behar da irakurketa horrekin gozatzeko, eta txikitatik ez badugu ohitura hori hartzen, eleberria errazago irakurtzen da. Jendeak uste du antzerkia taularatzeko idazten dela. Alde batetik egia da, antzez lan bat liburuaren barruan geratzen bada, nolabait osatu gabe geratzen delako.

Beraz, irakurleek bere kaxatik zerbait gehiago jarri behar dute egoeraren jabe egiteko, baina hori eginez gero, bidaia ederrak egin ditzakegu antzerkia irakurtzen.

Hori dela eta, ez bada irakurtzen, ez da argitaratzen.

Genero bezala, badu ezaugarri berezirik antzerki lanak? Zer zailtasun aurkitzen duzue honelako lanak idazterakoan? Erreferentzia falta? Hizkuntza ereduak...

Yolanda: Une honetan ni neu ez nau batere erakartzen helbururik gabe antzerkia idazteak. Esan nahi dut, bere garaian, testu huts gisa hiru edo lau lan idatzi nituen arren, nik neuk antzerki lanak proiektu zehatzekin lotuta ikusten ditut. Une honetan antzerkia idatziko badut izan behar

du talde, asmo, egitura, muga, jokalaria eta toki zehatz batzuei lotuta. Behin elementu horiek guztiak ezagunak eta zehatzak direnean, joko edo erronka erakargarri bihurtzen da niretzat erreferentziak bilatzea, hizkuntza ereduak frogatzea, elkarrizketa egokiak edo ahots bereziak eraikitzea.

Aizpea: Literatura dramatikoak bere ezaugarri eta legeak ditu, askotan hausteko badira ere, izan baditu. Lanak idazterakoan izaten diren zailtasunei buruz?... Obra bakoitza mundu bat da, hala ere, nobela egileek dituzten antzeko arazoak dira gureak ere, eguneko obra bat idazterakoan edota garai batekoa denean topatzen diren oztopoak, hizkera, tratamenduak, etab. Dena dela, eta ez naiz testu kostunbrista batez ari, zailtasunik handienetakoa hizkuntzari buruz hitz egiterakoan behintzat ulergarritasuna, testua entzuleari sartzearena, hizkuntzaren aberastasunak eskuratzea, esaldien estrukturak sor dezakeen doinua lantzea, etab dira.

Enkarni: Bai, dudarik gabe ezaugarri berezirik badu antzerki lanak. Kontatzen duzun istorio osoa, hau da, ekintza garatzen den lekua, pertsonaien ezaugarriak, sentimenduak, pentsaera, gertatzen dena, edo gertatu gabe geratzen dena..., guztia pertsonaien elkarrizketaren bidez adierazi behar da. Beti antzez-oharrak idazten dira, antzerkiko zuzendariari lan hori taularatzen duene-



an pista batzuk emateko. Baina pista horiek, normalean, lehorrak eta motzak izaten dira, batere xarmarik gabeak (salbuespen batzuk badira, esate baterako famatuak diren Valle Inclanek idazten zituenak). Beraz, elkarriketa da nagusi.

Galderaren bigarren zatiari erantzunez, niri antzerkia idaztea ez zait bereziki zailegi egiten. Zailena zer komunikatu behar dudana garbi edukitzea da, eta hori lortzeko zein pertsonaia sartu behar ditudan antzezlan horretan. Horren ondoren kontzientea izan behar naiz ikusleek jasoko dutena taularen gainean dagoela, eta pertsonaien elkarriketaren, isiltasunaren eta sentimenduen bidez komunikatu behar dudala. Gero idatzi... eta asmatu!

Argitaratzaileek ez dute interesa handirik erakusten antzerkiarekiko, ez? Zergatik? Errentagarria suertatzen ez zaielako? Merkaturik ez duelako?

Aizpea: Hori, editoreei galdetu beharko litzaieke, baina saturazio handia dago liburuen merkatuan, eta ez da ohikoa antzerkia irakurtzen duen jendea topatzea. Esango nuke, poesia irakurtzen duen baino jende gutxiagok irakurtzen duela antzerkia. Nire kasuan behintzat, helduentzat kaleratu dudana antzerkia argitaratzeko izan dudana bide bakarra sariak irabaztearena izan da.

Enkarni: Argitaratzaileek zer argitaratzen dute gehienbat? Saltzen dutena, eta lehen ikusi dugun bezala, jendeak irakurtzeko ez badu antzerkirik erosten, ale gutxi batzuk salduko dituzte. Badira bezeroak, aktoreak, antzerkiko zuzendariak, irakasle batzuk, antzerki zaleak, baina oso jende gutxi da merkatuaren gosea asetzeko. Dudarik gabe argitaratzaileei ez zaie errentagarria egiten. Horregatik, nire ustez mimatu behar dugu haur-errentzat idazten den haur antzerkia. Txikitatik ikasi behar dute antzerkia irakurtzen eta antzerkia maitatzen.

Yolanda: Esan bezala, etenik gabeko zurrumbiloa da antzerkigintzarena. Eta Argitaletxeak une



honetan merkatuaren beharretara lotuta daude, eta kasu askotan, haien zerbitzura. Jendeak, berriaz, ez du antzerki libururik erosten, ohikoena ipuin edo narrazioetara jotzea delako. Genero bezala ez da ezagutzen, ez delako gehiegi ere lantzen. Eta lantzen ez denez, ez da behar beste ezagutzen. Beraz...

Lan bat idatzi duzuenean eta gero taularatu denean, alde handia egon da bien artean? Ze nolako aldaketak egin dira? Ahal izanez gero, horrelako aldaketak sartuko zenituzkete egindako testuan?

Aizpea: Antzezlan bakoitza mundu bat da. *Hau paraderua!* Antzezlanaren Elena Irureta eta biok idatzia zen eta ni aritu nintzen zuzentzen, eta testua asko errespetatu genuen. Euskararen 7 bekatuetan esate baterako, testu aldaketak zuzendariarekin burutzen genituen, talde lan oso polita izan zen Olatz Beobide eta Edi Naudorekin egindakoa. Ongi ibilin, testua ia erabat errespetatu zen, zerbait laburtu genuen agian, *Ni ez naiz txotxolon*, testu aldaketak ajuste txiki batzuk besterik ez ziren; *Ama quiero ser lehendakari*, entsaioetan jatorrizko testua laburtu eta arintasuna eman genion... Eta orokorrean testua beti errespetatzen da, hori delako lanaren oinarria. Zorionez, estreinatu dudana egilea naiz eta horrek zalantzarik gabe asko erakutsi dit. Muntaiak bakoitzak bere ajusteak behar dituela uste dut, bere moldaketak, ez da txarra, errealitate bat baizik.



Yolanda: Idazten ditugun testuak argitaratzen diren une beretik ez dira ia «gureak», irakurleenak baizik. Eta antzerkiarekin, berdin. Dena den, kasuak eta kasuak daude. Bata da norberak bakarrik idaztea, idazte hutsagatik. Bestea, norbaiten enkarguz idazten joatea haien baldintzetara moldatuz. Hirugarrena, talde baten barruan egonik, taldearen sorkuntza lanari forma idatzia ematea. Eta laugarren kasua, norberak bakarrik idatzi arren, kontuan hartzea gero taularatuko duen taldearen baldintza eta mugak: aktore kopurua, aurrekontua, non egin nahi den...

Izanak izan, irakurlea eta ikuslea bi jasotzaile mota ezberdinak dira eta antzerki zuzendari on batek jakin behar du eskuan duen obra hori ikusentzule batentzat moldatzen. Nik autore naizen aldetik ahalik eta informazio gehien emango diot, baina gero berak bere bertsioa egingo du; alegia, bere irakurketa, bere interpretazioa, nire testuan oinarritutako «bere obra».

Enkarni: Esperientzia hori oso gertutik ezagutzen dut. Gehienetan gure taldea da nire testuak lehendabizi taularatzen dituen. Eta ia beti, antzezlanaz zutik jartzen dugunean sortzen dira lehen aldaketak. Baina gero dator garrantzitsuenak: publikoaren aurrean antzeztea. Eta handik aurrera testu horrek bizi propioa hartzen du. Pixkanaka aberasten, heltzen joaten da. Ez dira normalean aldaketa handiak sortzen, baina

bai nabardurak. Gauza txiki batzuk bide berri batetik joan daitezke. Esate baterako, pertsonaia batzuek garrantzi handiagoa hartzen dute, eszena batzuk motzak geratzen direla konturatzen zara, beste batzuk agian luzeegiak. Ikuslegoak frontoi baten paretaren efektua egiten du. Zuk pilota, hau da, testua botatzen duzu, baina batzuetan paretaren erantzuna, hau da, publikoarena, ez da zuk espero duzuna, eta nahitaez, hurrengo jokaldiak desberdina izan behar du. Prozesu hori niretzat zirraragarria da benetan.

Eta noski, ahal izanez gero, horrelako aldaketak sartuko nituzke testuan.

Nola ikusten duzue orokorrean antzerki lanen sorkuntza-mundua? Ongi al gaudu? Egoera txarrean? Beste hizkuntzetako egoerarekin alderaturik, hobeki, okerrago? Hitz bitan, zein da gaur egun gure (eta beste batzuen) antzerki-munduaren egoera?

Aizpea: Euskal antzerkiak, labur esanda, arazo bi dituela esango nuke, bata: bi hizkuntzatan egiteak euskaraz egindako antzerkia egoera txarrago batean jartzen du, ez dut uste gehiago esplikatuko behar denik, baina elbarri bat munduko errekorra egin duenarekin lehian jartzearen parekoa da, eta hemen ere, ez du antolatzaileak ahalegina egiten, taula gainera igotzen den antzezleak baizik, bi hizkuntzatan lan egitearen ahalegina bere gain doa, bere trebetasun eta abilidadarekin gain. Eta bestea: jatorriz euskal testuak estrenatzen badira, errentagarritasun bat bilatu behar dute eta horrek esan nahi du, antzerki pobre edo komertzialki arrakastatsua izango den antzerki erraz bat egitera behartuak gaudela. Euskal antzerkiak hori ondo egiten daki, eta halako gehiago baleude hobe, baina beste zerbait ere behar du: abangoardiako antzerki bat, antzerki klasiko bat, etab. Taldeak mantentzeko finantziario bideak eta iturri berriak bilatu behar dira. Eta herri askok dituzten antzerki eder horiek taldeek erabili behar lituzkete, etekin bat atera eta antzezlanak montatzeko erabili beharko lirakeke, ez ostiral eta larunbat bakar

batzutan zinea edo antzerkia erakusteko, aste barruan ere erabili behar dira, sorkuntzarako espazio izan behar dute, eta ez antzerki hilerriak.

Yolanda: Euskarazko testugintzari dagokionez oso pobre gaude. Batetik, ikusten dut makina bat narrazio eta poesia-lan daudela antzerkira moldatzeko modukoak. Bestetik, sekula baino idazle gehiago dago. Halaber, ezin ahaztu, berrogei urtetik beherako biztanlego handi-handi bat dugula euskaraz hezia. Zer falta da, orduan? Lurra. Eta zerk ematen du «lurra»? Antzerki eskola batek, tokian tokiko antzoki txikiek, lekuan lekuko tailer eta antzerki talde txiki amateurrek, mota ezberdinetako zirkuitu antolatuek (hirian, herrian, auzoan, tamaina txikian, handian...) Hitz batean, antzerkigintzaren inguruko politika-sistema serio eta konprometitu batek.

Enkarni: Urtero emanaldi asko ikusten ditut. Batzuk zuzenean, beste batzuk bideoaren bitartez. 100 inguru. Antzerkia ikustea gustatzen zaidalako, eta Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia prestatzen dugunean taldeen aukeraketa egin behar dugulako. Mundu guztietako emanaldiak dira. Nire ikuspegia hau da:

% 5 Oso oso antzezlan onak. Jenialak.

% 30 Onak

% 20 Erdipurdikoak

% 45 Txarrak.

Ez dut ikerketa formala egin, baina hau da gutxi gora behera nire iritzia.

Sormenaren inguruko hari honi ia bukaera emate aldera: antzerki lanen liburuak egin behar al dira edo ez? Hau da, zer funtzio ikusten diezue liburu horiei: irakurzaletasuna bultzatzekoa, entretenitzekoa... edo antzeztu izan daitezen jaioak direla uste duzue?

Aizpea: Egia esan, liburuetan testuak gorde-tzea faltan botatzen dut. Hainbat itzulpen, eta testu galduta daude, eta hemendik hogeitaz zororen bat horiek pilatzen hasiko da, eta beste ahalegin indibidual bat hor arituko da jo ta ke



lanean. Testu sormenerako Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru laguntzekin sortutako testuak ere, argitaratu gabe geratzen dira. Horretan Mikel Martinez-ek bere web orrian egindako lana txalogarria da benetan. Niri halere barkaezina egiten zait telebistak ez antzerkia grabatu izana, hori taldeentzat finantziario modu bat litzateke eta telebistak artxibo oso aberats bat izango luke. Guri gertatu zitzaigun anekdota xeble bat, telebistak «Hau paraderua» grabatzeko eskaintza luzatu zigun, hauxe zen bere eskaintza, gu saio bat egitera joan beraiek kamarak sartu eta batere molestatu gabe grabatu egingo zuten saioa, eta horren truke, publizitatea botako zuten gure hurrengo saioarena. Elena Iruretak oso zuzen erantzun zien, ea San Mames edo Atotxan halakorik egiten uzten zieten, batere molestatu gabe sartu eta saioa telebistaz botatzearena, eta han uzten ez bazieten hori egiten guk zergatik egin behar ote genuen.

Yolanda: Nik neuk ez dakit zer egin «behar» den. Premisa handi eta bakarrek beldur pixka bat eragiten didate une honetan.

Era berean, egia da, gauza solteek ere ez dutela zentzu handirik, eta antzerki liburuen beharrei begira egonda ez dela konpontzen benetako arazoa, hots, aurreko galderan aipaturiko antzerkigintzarako politika egokia: eskola, tailerrak,

zirkuituak... Horiek dira antzerkiari lurra eman-
go diotenak eta horietatik sortzen den mugimen-
duen eraginez etorriko dira, etortzekotan, liburu,
dramaturgia eta enparauak.

Enkarni: Bai, antzerki lanen liburuak argitara-
tu behar dira. Horixe baietz. Baina puntu hauek
eduki behar ditugu kontutan:

–Antzerkia normalean ez da irakurtzen, zori-
txarrez ohiturarik ez dago eta.

–Libururik erosten ez bada, gutxi argitaratuko
dira.

–Eta ez badira argitaratzen antzerki lanen
sorkuntza gutxiagotzen joango da.

–Zaletasuna haurtzaroan piztu behar da.

Nire azkeneko antzerki lanetan bide berri bat
hartu dut. Neska-mutilendako daude zuzendu-
ak, eta atseginak egiten saiatu naiz. Alde batetik

liburuak marrazkiz hornituak daude, beste aldetik
antzerki-oharra, literatura bihurtu dut, neska-
mutilen irakurketa errazteko. Nire ustez hori
bide egokia da. Pozik nago, baina oraindik goiz
da ondorioak ateratzeko.

Kanpotik ikusirik badirudi antzerki sortze-lanek
menpekotasun handia dutela eskolarekin? Zuek
horrela ikusten al duzue? Horrek ez al du gehiegi
markatzen antzerki lana, didaktismoaren bidetik?

Aizpea: Baliteke, baina ez beti. Nire kasuan
behintzat, behin edo behin lan egin dezaket
behar bati erantzuten baina ez beti, gustoz ere
lan egiten dut.

Yolanda: Nork egiten duen antzerki lana.
Gauza guztiak bezala, irakasle batzuek hizkun-
tza lantzeko erabiliko dute, beste batzuek urte
amaierako funtzioa osatzeko edota eskolaren
urteurrena ospatzeko.

Nik neuk uste dut une honetan pisu handia
duela eskolak antzerkigintzan. Hari ezer kendu
gabe, arestian aipaturiko gabeziak bete beharko
lirateke.

Eskolaren eremuan sartu garelarik, betidanik
esan izan da antzerkia «ariketa» osoa izan daitekeela
eskolan: ahozko erregistroak, gorputz-adierazpena,
plastika, balioak, zehar lerroak... lantzeko aukera
eskaintzen duen heinean. Baina, zuen esperientzia-
tik, nola ikusten duzue kontu hau?

Yolanda: Horrelaxe. Nik makina bat tailer
eman dut eta begi-bistan ikusi dut zer-nolako
ahalmena duten, benetan ahalmen horretan
sinestuz gero. Antzerkigintzak norberaren «ni»a
lantzeko primerako materiala eskaintzen du eta
era berean «ni» horren konplexutasuna ezagutze-
ko aukera paregabea. Hortik abiatuz «bestearen»
lekuan jartzeko bidea ematen digu eta hau guztia,
etenik gabe, talde-giroan. Horrez gain, hainbat
diziplina ezberdin lantzeko gonbitea egiten
digu: musika, esku-lanak, gorputz-adierazpena,
plastika... Azkenik, ezin ahaztu antzerkia beti





«norbaitentzat» egiten dela, hau da, ikuskizun baten inguruan jendea biltzeko motorra dela.

Kontua zein da? Kontua da hau guztia lantzeak emozioak lantzea dakarrela, eta alor horrek beldurra eragiten duela; beldurra gidatzeko orduan, eta beldurra neurtzeko orduan ere.

Aizpea: Hala dela, baina irakasleek ez dute gaia menderatzen. Helduok ere ez dakigu antzerkia irakurtzen; ikasleei nola erakutsi orduan?

Enkarni: Haur Hezkuntzari eta 1. eta 2. ziklotako Lehen Hezkuntzari buruz hitz egingo dut. Hau da, 3-10 urte bitarteko haurrei buruz.

Garrantzi handia duen bereizketa bat egin behar dugu.

Alde batetik, joko dramatiko edo dramatizazioa dugu, hau da, antzerkiarekin lotuta dauden zenbait joko eta inprobisazioak. «Joko dramatiko, haurtzaroan, berez, besterik gabe sortzen da. Askotan umeek esaten dute “eman dezagun halako garela (ama, umea, irakaslea, indioa, e.a.)”. Eta joko dramatiko gisa horretako jolasen ondorio naturala eta luzapena da.» Joko horiek batzuetan antzeppen txiki bat bihurtuko dira, baina antzerki ezformalak izango dira, gelan egiteko, ikuslegorik gabe, batere kanpoko presiorik gabe. Antzeppen hori, sortzen bada, ez da helburua, beste ariketa bat gehiago egiteko, aitzakia baizik.

Jolas horiek irakasleek bultzatu, proposatu eta

zuzendu behar dituzte, baina haurren irudimena, sormena eta pentsaera dibergentea bultzatuz.

Jolas mota horien bidez haurrak dituen adierazpen-baliabideak aberasten dira: ahotsa, keinu dramatikoak, gorputz-mugimendua. Era berean, haurren irudimena eta sormena eragiten dira. Hitz batean adierazteko: haurren nortasuna indartzea da helburua.

Joko dramatiko hau eraginkorra izateko, programazioaren barruan egon behar du, beste arloekin egiten den bezala. Programazio honek progresiboa izan behar du, haurren heldutasuna kontuan harturik. Hori urtero landu behar den gaia da, gutxienez astean behin.

Zoritxarrez, dramatizazioa, horrela planteatuta, oso leku gutxitan egiten da.

Bestalde, betiko antzerkia dago, helduek egiten duten antzerkia, alegia.

Kasu honetan irakasleek (batzuek) eskolan antzerkia egin behar dela garbi daukate, «ariketa» osoa izan daitekeela eskolan.

Horregatik, idatzita dagoen testu bat bilatzen dute, edo ikasleen artean sortzen dute. Ondoren, pertsonaien banaketa egiten dute eta entsaiatzen hasten dira. Zenbat eta entsaio gehiago egin, orduan eta hobeto aterako da ekintza, normalean antzeppen horiek ikuslegoaren aurrean egiten baitira: gurasoek antolatutako jaialdi batean, Gabonetako jaialdian, e.a.

Ikaragarritzko lana dakar ekintza hori aurrera eramateak, eta emaitza, nire ustez, eskasa izaten da.

Nahikoa garrantzi ematen al zaio antzerkiari eskolan? Kurrikulumean hobeto sistematizatu txertatu beharko litzateke? Ala egokiagoa da eskolaz kanpoko tailerretan edo antolatzea antzerki-heziketa hori?

Yolanda: Ez dakit zein den bide onena. Une honetan ez dut premisa bakar eta konponbide handiegitan sinesten.

Eskola barruan kontenplatzeak halako berme



bat dakarrela ematen du, baina gero, ikusi egin behar nork ematen duen ikasgai hori eta zertarako. Argi dago bide honek irakasleen formazioa. Irakasle Eskoletatik bermatzea eskatzen duela.

Eskolaz kanpoko ekintzen multzoa, berriz, oso kutsatuta dago, eta zaila da benetako talde iraunkor bat aurkitzea, umeak ekintzaz ekintza saltoka dabilatzalako beti zerbait hobearen bila.

Irtenbidea? Arestian aipatu dudan alor askotara iristen den politika sistematizatua: eskola handia, tailerrak, antzerki zirkuituak auzo, herri, hiri, probintzietan, antzoki txikiak auzo guztietan...

Enkarni: Galdera batekin erantzungo dut. Zer gertatuko litzaioke 2. mailako irakasle bati bere kurtsoan matematikarik emango ez balu gaia gustatzen ez zaiolako, edo bere burua horretarako ongi prestatua ikusten ez duelako...? Zeuek erantzun.

Ba hori bera gertatzen da eskola askotan, eta irakasle askorekin dramatizazio gaiarekin. Eta zer gertatzen da? Ezer ere ez. Gurasoei ez zaie inporta, ez administrazioako arduradunei, ezta eskolako zuzendariari ere.

Eta eskolatik kanpo tailerretan hobeto antolatzen da antzerki-heziketa? Batzuetan bai, baina ez da haur guztiengana iristen. Beraz, ez da soluziorik onena.

Aizpea: Ez, ez, eskolarako oso tresna aberatsa da. Eta eskolaz kanporako zer esanik ez. Ez du munduak zertan kirolaren konpetiziopean bizi, badira beste kontu batzuk eta gozatzeko bide batzuk; esate baterako, antzerkia.

Ezagutzen al duzue eskola barruko esperientzia interesgarririk? Eta eskolaz kanpokorik?

Aizpea: Bai, badira eskolak antzerkia oso ondo lantzen dutenak. Eskola askotan ibilia naiz antzezlanekin eta saio asko ikusi ditut neska-mutilek nire testuekin edo beraiek sortutakoekin eginak, eta hunkitzeko moduko lanak ikusi ditut. Ia beti emaitza horien atzean pertsona bat dago, antzerki-zale porrokatu bat, horretan sinesten duen norbait.

Yolanda: Eusko Jaurlaritzaren *Nolega* proiektuan, adibidez, lan asko eta onak ezagutu izan ditut. Donostiako Zurriola ikastolan ez dakit eskola barruan ala eskolaz kanpo lantzen den, baina nabarmena da bertatik atera den aktore-aktorea kopurua.

Enkarni: Bai, bi esperientzia azpimarratu nahi ditut.

1. Gasteizko Teatro Paraisok eskoletan egiten duen lana

2. Getxon. Kultur Etxea/Aula de Cultura Eskolatik kanpoko tailerrak egiten dituzte.

Eskolan lantzeko antzezlan laburrak eta «errazak» biltzen dituen materialen bat beharko litzatekeela entzun izan diogu zenbait irakasleri. Zer deritzo-

zue? Ba al da halakorik? Aholkatuko zenizkigukete hezkuntzako ziklo bakoitzerako antzezlan bana (ikustera joateko, batetik, eta eskolan prestatu eta antzezteko, bestetik)?

Enkarni: Erein argitaletxeak «Antzoki txikia» saila sortu du testu errazekin. Nire ustez, material interesgarria da. Hala ere, testu horiei Joko Dramatiko batzuk gehituko balitzaizkie, hobeto izango litzateke. Nik idatzitako antzezlanetan horrelako proposamenak egiten dizkiet irakasleei. Hau da, testu formal batekin hasi baino lehen joko asko egin daitezke horren inguruan, ahots, gorputz, keinu-adierazpena lantzeko; baita irudimena eta sormena ere. Hori agian izan daiteke bide erdi bat. Eskolan horretarako dedikatzen dugun denbora guztia ez erabili ohiko antzerki bat prestatzen. Baina horretarako garbi eduki behar dugu haurrak ez direla gustagarriak izan behar duten antzezelek, hezten ari diren indibiduoak baizik, eta kasu honetan garrantzitsuen prozesua dela, ez kurtso bukaerarako prestatzen dugun emanaldia.

Yolanda: Ez dakit, nik neuk batik bat sor-kuntza eta egokitapena landu izan ditut. Baina, hor dago, esate baterako, Maskarada taldearen web-orria (www.teatroa.com).

Haur-hezkuntzako txikiek antzezteko poema dramatiko ugari aurki daitezke, adibidez, Anjel Lertxundiren *Aizak eta aizan elkarrekin dantzan* (Elkar, 2002) liburuan.

Lehen hezkuntzari dagokionez hor ditugu Aizpea Goenagaren *Antzezten... teketen ten!* (Erein. Donostia, 1999) edota Aitor Txarterinaren *Zenbakiak ala eleak. Pedagogoa gogoan. Ekologikoa.* (ARTEZ BLAI. Kultur Elkartea. Elorrio, 2003). Ahaztu gabe Alaitz Olaizolaren lan berriak edota Enkarni Genuaren *Zergatik bizi da basoan Txanogorritxoren amona?* izenekoa, guztiak Erein argitaletxeak sortu berri duen «Antzoki txikia» bildumakoak.

Bigarren Hezkuntzan, Montxo Iturbide, Jon

Zabaleta eta Mitxel Muruaren *Zine-antzerkiak* (Elkar. Donostia, 2003).

Ikustera joateko gonbidapenari dagokionez, ez naiz ausartzen ezer esaten.

Eskolako txirrinak jo du eta berriz ere eskolatik at ariko gara, ongi baderitzozue. Erkidegoari dagokionez, ezagutzen al duzue Eskola Antzerkigintza laguntzeko Jaurlaritzak duen programa? Laguntzak ematen dira eta gero eskola behartuta dago 3 emanaldi egitera, norberaren eskolan eta beste bitan...; urteetan, gainera, Eskola Antzerkia izenburuko hainbat liburu argitaratu dira eta gidoiak jaso. Zer irizten diozue? Nahikoa egiten al da? Ardura administrazioarena da, ala irakasleek autokritika egin beharra daukate?

Enkarni: Behin eta berriro errepikatzen ari naizela konturatzen ari naiz, baina beti galdera beretara iristen gara. Zein da biderik onena eskolan antzerkia lantzeko 10 urte arte, gutxi gorabehera?



Joko dramatikoa. Zer da hori? «Dramatizazioa errepresentatzeko era bat da, ideiak, sentimenduak eta bizipenak adierazteko eta komunikatzeko, gorputza, ahotsa, espazio eta denbora eszenikoa erabiltzen dituen».

Eskolako antzerkigintzak proposatzen eta aurrera eramaten duena, beste proposamen desberdin bat da: antzerki formal bat egitea. Niretzat plan hau pobreagoa da, eta administrazioak ebaluatu beharko luke. Agian egiten dute, baina ez dakit norekin eta zein irizpiderekin. Kurtso hasieran eskolei proposamen hori egiten zaie, eta gainera, ekintza aurrera eramateko, diru-laguntza eskaintzen diete. Zenbait eskolatan onartu egiten da, agian asko hausnartu gabe, edo erraza iruditzen zaielako, edo bide hori betidanik ezagutzen dutelako. Nire iritzia kontrakoa da, baina... zer esango dizuet ba?

Aizpea: Hori luze hitz egiteko kontua da, eseri eta plan bat egin behar da. Hemen bat-batean botako dudanak ez dut uste, kontu honi buruzko nire asmoa erakusteko gai izango denik. Lan egin behar da, eta sokatik tira. Halako bultzada bat eta bere horretan uztea ez da nahikoa. Ez da hori sokatiraren legea.

Yolanda: Bai, ezagutzen dut programa hori, eta neuk ere parte hartu nuen duela dozena bat urte.

Programa honi eta beste antzekoei dagokionez, kontua ez da dagoena pikutara botatzea, baizik eta hutsuneak detektatu eta horiek betetzen saiatzea. Nik neuk uste dut badagoela eskola-antzerkigintzan zer hobetu, baina garrantzitsuagoa ikusten dut lehen aipaturikoa, hots, euskarazko antzerkigintzari buruzko plan zehatz bat, bere eskola, zirkuitu, tailer, diru-laguntza eta guzti.

Plan horren barruan legoke, baita ere, eskolan egiten den antzerkiaren balorazioa eta, ondorioz, antzerkigintzari ematen zaion rola eta lekua aztertzea edo kritikatzeta.

Nafarroari dagokionez, ezagutzen al duzue Nafarroako Antzerki Eskolak urtero antolatzen duen haur antzerki lehiaketa? Zertan da? Zer-nolako onurak ekartzen ditu?

Aizpea: Bai, behin baino gehiagotan hartu dut parte. Haurrentzat antzerkia idazten dudalako eta asko gustatzen zaidalako gainera, eta kezka sorrarazten didan zerbait da. Lehiaketa horretan gainera antzezlan argitaratzeaz gain taularatu egiten dute eta hori eskertzekoa da.

Yolanda: Lehiaketa hori ere hor dago, beste hainbat eta hainbat dauden moduan. Lehiaketek, berez, ez dute ezer konpontzen, baina, lehiaketa horri esker norbaitek zerbait idaztea lortzen bada, ba horixe gehiago.

Kontua da lehiaketa horretara ez murriztea. Alegia, beste gauza asko ere geratzen da egiteko, antzerkia benetan landu nahi bada.

Enkarni: Kasu hori desberdina da. Antzerki lehiaketa horretako testuak hurrei daude zuzenduak, baina helduek antzezteko. Ondo iruditzen zait. Horren beharrean aurkitzen gara, eta epaimahaia ona bada, testu onak aukeratuko ditu, gero talde profesionalak edo afizionatuak antzezteko. Euskaraz ez daukagu testu askorik eta ongi etorriak dira.

Noizbait Fatima Mersini idazle marokoarrari irakurri genion txikitan antzerkia egitea lotsa gainditzeko eta mundura zabaltzeko –besteen larruan sartzeko– aukera paregabea gertatu zitzaiola –jau-regian bertan egiten zuten; ez ahaztu emakumea harem batean jaio eta bizi izan zela–. Idazleak honela dio: «Gainera, Txamaren antzerkiak aukera ezin hobe eskaintzen zigun gure dohainak deskubritzeko eta kanporatzeko, lotsa gainditzeko eta geure baitako konfiantza handiagotzeko». Nola uste duzue laguntzen diola antzerkiak haurrari?

Aizpea: Ez dut Marokora joan behar hori jakiteko; guk umetan etxean eta baita eskolan ere makina bat antzerki egin izan dugu. Eta gure seme-alaben eta iloben afizioetariko bat antzez-

lan bat antolatzea izaten da, sarrera kobratuz, noski. Eta garaia loturik, alabaren zaletasun handietariko bat, oso txikitandik gainera, antzerki horiek grabatzea izan da, eta pelikulak edo bere panpinekin bideoak egitea.

Antzerkigintza eskolarako oso garrantzitsua iruditzen zait eta zoritxarrez baztertuta dago. Eskola barnean hizkuntza, hizkera, memoria, talde-lana, diziplina, gorputza, adierazpena, etab.

lantzeko tresna mundiala da. Kirola bultzatu den bezala, eskolaz kanpo lantzeko moduko zerbait iruditzen zait

Enkarni: Fatima Mersiniren iritzia oso ondo etortzen zait azkeneko gogoeta egiteko. Haur Hezkuntzako eta 1. eta 2. zikloko Lehen Hezkuntzari buruz ari naiz hitz egiten.

Konparaketa bat egingo dut.

ANTZERKIA EGITEN DUGUNEAN	JOLAS DRAMATIKOA LANTZEN DUGUNEAN
Fatima kurtsoan zehar pertsonaia baten larruan sartuko da. Hau da, urte horretan Ama baten papera suertatzen bazaio, amaren larruan sartuko da, normalean urtean behin antzerki bakarra egiten da.	Fatima kurtsoan zehar, pertsonaia askoren larruan sartuko da. Aste batean ama izatea tokatuko zaio, hurrengo astean, lapurra edo ume negartia edo... Jolasen arabera.
Fatimak besteek asmatutako hitzak errepikatuko ditu. Horretarako, memoria landu egingo du.	Fatimak pertsonaia bakoitzari, hitzak asmatu eta eman behar dizkio. Horretarako, irudimena landuko du.
Fatimak ama baten sentimenduak esperimentatuko ditu.	Fatimak amaren, lapurraren, txorien, eta zenbait pertsonaiaren sentimenduak esperimentatuko ditu.
Fatimak, amaren papera eginez bere gorputza landuko du.	Fatimak, pertsonai askoren papera eginez, bere gorputza landuko du.
Fatimak laguntza aurkituko du lotsa gainditzeko.	Fatimak, presiorik gabe, laguntza aurkituko du lotsa gainditzeko.
Fatimak, zuzendariak, hau da, irakasleak esandakoa egin behar du, eta idatzitako hitzak errepikatu.	Fatimak joko horiek egiteko pentsaera dibergentea landu egin behar du, irudimena eta sormena landuz.
Fatimak antzezlan hori egiterakoan, mundua hobeto ezagutuko du.	Fatimak mundu asko eta desberdin batzuk ezagutuko ditu Joko Dramatikoa landuz.

Eta gogoeta galdera bat amaitzeko:

Xabier Diaz Esarteren kritika eta kontakizun gordina: «Jakin, badakigu generoak hiru balio gramatikal izan ditzakeela hainbat hizkuntzatan, gaztelanian kasu, eta hiru balio horiek –maskulinoa,

femeninoa eta neutroa— badute parerik, alderik alde, literatura generoekin. Maskulinoa narratiba litzateke; poesia genero —gutziz gutxiagotua— femeninoa izango zen eta, antzerkia, genero neutroa. Hau da, ez da bero ez hotz, indiferentea, inolako pasiorik sortzen ez duena» (*Calco, Behinola*). Xabier Diaz Esarte antzerkigileak gaineratzen du argitaletxeak eta irakasleak direla, batik bat, gabezia horren eragile: batzuk, kultur irizpideetan baino gehiago marketing hutsean oinarritzen direlako eta, bestetarik, ezohiko lanaren eta buruhausteen beldur direlako.

Aizpea: Hausnarketa injeniosoa benetan. Baina irakasleek antzerkiaz ezer gutxi baldin bada-kite, ezer gutxi egin dezakete edota bide okerretik joan daitezke beren borondaterik handienarekin. Horretara jo behar genuke, baina norbaitek tira egin behar du soka horretatik

Enkarni: Ai, ai, ai, ai, ai, irakasleak!

Haurrei pixa egiten eta mukiak kentzen erakutsi behar diete, eta gauzak konpartitzen ere bai. Eta haur askori arrotz den hizkuntza transmititu behar diete, eta euren artean sortzen diren iskanbilak biolentziarik gabe konpondu behar dituztela ulertarazi. Eta elkar errespetarazi, besteei entzuten ikasten. Batzuetan euren etxeetan ez dituzten oinarrizko arauak ere erakutsi behar dizkiete. Noski, matematika ere bai, eta soinketa, eta ingurumena, plastika, musika. Eta igeri egiten ere bai, oso praktikoa delako. Gurasoekin eztabaidatu behar dute, eta 100 informe idatzi, eta inkestei erantzun...

A! Ahazten zitzaidan! Ezohiko lanetan eta buruhauste berrietan ere sartu behar dute.

Ai, ai, ai, ai... irakasleak!

Yolanda: Neurri batean bat nator kritika horrekin, baina arriskutsua irizten diot erru guztia bi gune bakarretan biltzeari.

Lehenengo eta behin, markoa definitu beharko genuke: euskaraz bizi den gizartea.

Egia da, une honetan, euskal argitaletxeak ez direla gehiegi ausartzen, eta horrek nolabait salmentei eta erosleei begira bakarrik egotea dakarrela.

Irakasleak ere ez direla konplikatu nahi? Agian ez, baina egia da, baita ere, eskolak ezin dituela gizartearen hutsune guztiak bete. Irakasle batzuek lantzen dute antzerkia (edota literatura) era txukun batean, besteak beste, gustuko dutelako. Egia da gustua ezin dela behartu, baina bai landu. Honenbestez, argi daukat antzerkiak eskolan derrigorrezko ikasgaia izan beharko lukeela, baina marko orokor batean, non arteari, orokorrean, leku eta garrantzi handiagoa ematen zaion, balio, emozio eta adierazpen estetikoaren alde; hasi Haur Hezkuntzatik eta Unibertsitatera.

Laburtuz, bada, argitaletxe ausartak eta irakasle sentiberak ez ezik, politikari trebeak eta bizitzari buruzko ikuspegi irudimentsuagoak ereiteko premia ere ikusten dut nik, tamalez, burokraziak itota bizi garelako, emaitza azkar, kuantitatibo eta ikusgarrien morroi.

